



## EGIA BILERAREN LABURPENA

<b>Eguna</b>	2015/11/04
<b>Ordutegia</b>	19:00-21:10
<b>Tokia</b>	Jareño Egiako Kultur Etxea



### DEITUTAKOAK

#### **EGIA BIZIRIK Auzo Elkartea**

**Gune Publikoak  
Hiri Zerbitzuak eta Herri Partaidetza.  
Udal ordezkari politiko eta teknikoak**

### BERTARATUAK

#### **Egia Bizirik Auzo Elkartea**

Lehendakaria, diruzaina eta Auzoko bizilagun

#### **Udaleko Partaideak :**

Duñike Agirrezabalaga, Zinegotzia  
Alfonso Gurpegi, Zinegotzia  
Juan Ortiz de Zarate, Zuzendaria  
Jurdana Arruabarrena, Teknikaria  
Olatz Mujika, Eva Esnal Teknikaria

## **HELBURUA:**

***EGIAN hobekuntzak egiteko premiak eta proposamenak jasotzea, segimendua egitea eta auzoarekin lotutako proiektuei buruzko informazioa ematea.***

### **Landutako gaiak**

- 1.- Auzo-Etxe.
- 2.- Blas de Otero Plaza.
- 3.-Egiako Bidegorria.
- 4.- Plaza Handiko estalpea.
- 5.- Tejeria Kalea Oinezkoentzako jartzea.
- 6.- Kotxeen azalerako aparkalekuak.
- 7.- Kale garbiketa.
- 8.- Frontoia.
- 9.- Tabernetarako ordutegia.
- 10- Elektromagnetiko kutsadura.
- 11- Auzoko Komertzioari laguntza.
- 12- Tolaregoia Plaza.
- 13.- Kristina-eneatik bizikletak pasatzea.
- 14.- Egiako Goiko aldea (Onkologikoa)

### 1. -AUZOETXEA

Duela urte eta erdi daramate lanean gai honekin, historia kontatu ziguten. Auzo Batzarra sortutako proiektua da.

Anteproiektu bat egin zuten eta Udalakin harremanetan egon ziren. Lokal bati begia botata zuten Lehengo Onkologikoan. Kutxarekin harremanetan egon dira behin baino gehiagotan eta hori ordez beste bat proposatu zieten Mundaiz gimnasioa izandakoa 230 m.kuadrata dituen. Lehengo Udal Gobernuak Kutxari proposamen bat egin zien bainan ez zuten onartu.

*Duñike harremanetan jarri da Carlos Ruizekin eta Kutxako eskeintza izan da beraiek erosi eta Udalari alokatu, urtean 15.000 euro suposatuko luke gehi lokala egokitu, gehiegizkoa iruditu zaie duten presupuestorako.*

Auzo Elkartearen eskaera da:

Bi hilabete barru, gehienez erantzun bat ematea, bai ala ez. Kontsideratzen dute Egiako Auzoan ez dutela lokalik beraiek proiektutarako, Udalak ez ditu lokalarik han, beraz eskatzen dute lokalen bat erosi, alokatu edo konbenio baten lortu.

Kutxa, Udala eta beraiek batera elkartzea, argi hitz egiteko.

*Konpromisoa izan zen erantzun bat ematea bi hilabetetan.*

### 2. BLAS DE OTERO

Parte hartu zuten Udalak antolatuta Partaidetza prozesu batetan. Emaitzak kontutan izanda Arkitekto talde batek proiektu bat aurkeztu zuten eta onartu egin zen. Proiektu honek estalki bat zuen. Martxoaren bukaera izan zen hau.

Abuztuan prentsaren bidez jakin zuten proiektua aldatu egin zela, proiektu berri honetan estalkirik ez zuela. Tarte honetan auzokide batzuk pankarta bat jarri zuten eta firma batzuk bildu estalkiaren kontra.

Hasarre eta minduta azaldu dira. Beti sinistu izan dute Partehartzaile prozesutan baina sinisgarritasuna galdu dute.

Formak batez ere kritikatu dute, bildu beharko ziren tailerretan lan egin zutenekin eta azalpenak eman eta prentsaren bidez jakitea.

*Duñikek zinegotziak esan zuen, politikoei erabaki hartu zuten estalkia kentzea kalean bizi direnentzat puntua bihurtu daitekela eta Tabakalerako egin duten obra eta gero ez zela behar.*

Egia bizirik auzo elkarteko kideak (Berdaitz) adierazten du Duñikek emandako azalpena aitzaki utsa dela eta partehartze prozesuan erabakitakoa errespetatu gabe udal gobernu berriak egin duena izan dela bizilagun batzuei (sinadurak auzokideak dituztenak) kasu egitea ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, eta honek aurrekari bat suposatzen duela udal gobernuaren aurrerako ibilbidean parte hartze prozesuen aurrean, alegia bere burua deslegitimatuta duela aurrerantzean honelako prozesuak antolatzeko garaian bere aurrekoek egin dituztenak errespetatu ez dituzte.

### 3.- BIDEGORRIA

Bidegorriarekin gauza bera gertatu da. Talde desberdinek egin zuten lan (Dbus, Kalapie, Auzo Elkartea, Udaleko teknikariek..) eta egin zuten proiektua ontzat eman zuten.

Prentsaren bidez jakin zuten aldatu egin zutela proiektua. Gaur egun obrak aurrera dijoaz eta auzokideek ez dakite zer egingo dute, nolako trazadua izango den.

Behin baino gehiagotan eskatu dute hitz egitea erantzunkizuna duten politikoekin baina ez dute lortu.

*Duñikek zinegotziak arrazoia eman zien beraien hasarreagatik eta*

*konpromisioa izan da berriro horrelako jokaera ez ematea. Zuzenki informatzea eta ez prentsaren bidez jakitea.*

#### **4.- PLAZA HANDIKO ESTALKIA**

Plaza honek Herriko Plaza funtzioa egiten du. Ekintza asko antolatzen dira, talde desberdinek: Ikastola, festak, Haurgunea... eta elkartze gune bat izaten da. Zati bat estalita dago baina kobertura oso altua da eta euria egiten duenean buzti egiten dira. Ez du betetzen behar den funtzioa.

Auzo elkarteak eskatzen du estruktura berri bat egitea. Talde bat osatu dute horren inguruan lan egiteko eta proposata bat aurkeztu digute, marraztuta 3D

. Udalari beraien proposamenaren irudiak bidaliko dizkie, eta Udalak proposamena aztertuko duela ziurtatu du. Bizilagunek, plazaren beharren eta erabilera desberdinen inguruko partaidetza prozesu bat egitea ere proposatu dute.

Hau dena gauzatzen den bitartean, auzokideek erabiltzeko beste espazio batzuk eskatzen dituzte: Frontoia eta Gazte eszena libre daudenean. Kirol Patronatura eta Kulturara helaraziko zaizkie eskaerak.

#### **5.- TEJERIA KALEA (EDO BESTE BAT) PEATONALIZAZIO ARINA**

Auzoaren eremu gehiena aldapan dago horregatik zona egokia iruditzen zaie Tejeria kalean. Horrez gain, bitan kalea itxita egon da ekitaldi batzutarako, "0 Km" adibidez eta ikusi dute egokia izan daitekeela.

Auzokideekin partekatzea eskatzen dute, jakiteko ados daudela edota beste proposamenak dutela.

*Mugikortasunera helaraziko da.*

#### **6.- KOTXEEN APARKAMENDUA**

Iritsi desberdinak daude beraiek artean bainan denak ados daude irtenbide bat bilatu behar dela Egian duten apartzeko arazoari.

Alde batetik Auzoan bertan kotxe gehiegi dago eta bestetik Erdigunetik oso hurbil dagoelako kanpoko asko etortzen dira Egiara aparkatzera.

Azaleko aparkamendu gutxi dago eta gehiena regulatu gabe dago. Eskatzen dute OTA zabaltzea eta residentek kontutan izatea. Lurpeko Parkinga gehiago egitea ere aukera bat litzateke.

Beharrezkoa ikusten dute estudio bat egitea auzo osoa kontutan izanda, goiko aldea ahaztu gabe.

*Mugikortasunera bidaliko da eskaera.*

#### **7.- AUZOAREN GARBIKETA**

Auzoa oso zikina dago. Garbitasun zerbitzukoek ere ados daude, horrela ikusten dute.

Auzokide batzuk Udalari kexatu dira ur-makina pasatzen denean ura sartzen zaiela. Baina bat omen da eta gehienek pasatzea nahi dute.

**Duela gutxi errefortzatu dute garbitasaun zerbitzua, itxoin behar pixkat emaitzak ikusteko. Abenduaren hasieran aurreikusita dago garbitasun sakona egitea Egian. Garbitasun plana bilaliko zaie Auzo Elkarteari.**

Sensibilizazio kanpaina ere egitea komenigarria ikusi dugu. Txakurren kakarena ere.

## 8.- FRONTOIA

Egiako Frontoia desberdin kudeatzen da.

Asko kostatu zaie lortu dutena lortzea, hau da: 17 etatik 19 etara sarrera libre , 19 etatik 21etara libre baldin badago eta oporretan (Aste Santuan, Gabonetan eta Udaran).

Gaur egun, Gobernu berriak gutxitu diete erabiltzeko ordutegia. 19etatik 21etara nahiz eta libre egon ezin dute erabili, oporretan ezta ere. Martin Ibabek in hitz egin zuten eta berak ez zekien ezer. Kirol Patronatuarekin hitz egiten saiatu dira eta ez dute lortu.

*Konpromezua izan da Martin Ibabekin hitz egitea ea lortzen duen lehen zutena, gutxienez, berrezkuratzea.*

## 9.- TABERNETARAKO ORDUTEGIA

Azaldu zutenez tabernekin Jazzaldian, Zinemaldian, Aste Nagusian, baimena dute beranduago ixteko, nahiz eta auzoan egun normalak izan. Berriz Porrontxotan lau egun bakarrik zabalitzen zaie ordutegia.

Auzo Elkarteen eskaria da, Porrontxotan, aurre Porrontxotan eta Zerbetza Ferian ere ordutegia zabalitzea, egun gehiago ez izateko, auzokideak ez molestatzeko. Aldatzea Jazzaldiko, Zinemaldiko... egunak besteengatik.

*Konpromezua Alfonso Gurpegik hori lortzea ahalegintzea.*

## 10.- ELEKTROMAGNETIKO KUTSADURA

“Afekzio mapa” bat egin dago eta Plenoan onartuta. Galdera izan zen zergatik ez dago martxan.

*Erantzuna izan zen alegazioak egin zirela eta hori resolbitu arte ezin dela aplikatu.*

*Euskal Jaurlaritzako Osasun Saila ari da neurtzen uhin hauek baina bukatu gabe dute ikerketa. Bukatzen dutenean bidaliko zaie jakinen gainean egoteko.*

## 11.- AUZOKO KOMERTZIOARI LAGUNTZA

*Auzoko komertzioari laguntzeko aurreikusita dago froga piloto bat egitea. Prinzipioz Egia auzoa aukeratuta zegoen. Hurrengo astelehenean hilak 9, Merkataritzako Ahulku Kontseilua bilduko da hortaz hitz egiteko. Gainean egongo gara eta berria izaten digunean informatuko ditugu.*

## 12.- TOLAREGOIA PLAZA

Plaza honetan zuhaitz batzuk hil dituzte. Auzokideak kexkatuta daude eta eskatzen dute Udalari neurriak

hartzea. Adibidez kartel batzuk jartzea errespetuta eskatzeko eta udaltzaingoa hortik pasatzea.

### 13.- KRISTINA-ENEATIK BIZIKLETAK PASATZEA

Ikusi dutenez Ribersetik Amarara pasatzeko baimena dute. Eskatzen dutena da, beheko bidetik pasatzeko baimena, Egiatik Amarara joateko, bestela buelta handia eman behar dute, Atotxako pasabidetik ere ezin dute txirindaz joan.

### 14.-EGIAKO GOIKO ALDEA (ONKOLOGIKOA)

2007ko Plan Orokorrean Egiako goiko eremun zabal bat (Onkologikoa...)

etxebizitzak egiteko aurreikusita zegoen. Dena geldirik dago eta gustatuko litzaieke jakitea zer asmoa daude. Ba dirudi OSALANeko egoitza ere hor zegoela eta usten dute Udaletxekoa dela.

*Auzo-etxerako izan zitekeen? Informatuta egotea eskatzen dute.*

*Hirigintzara bideratuko da informazio eskaera.*

Bilera 21:10 etan bukatu egin zen.

